



**37/2002 GOMENDIOA, ABENDUAREN 3KOA, DONOSTIAKO UDALARI  
EGINA, SANTO TOMAS FERIAN ANIMALIAK BABESTEKO ARAUDIA  
BETEKO DELA BERMA DEZAN.**

**Aurrekariak**

1. Jakina denez, urtero, abenduaren 21ean, Donostian antolatzen den zozketan txerri bat erabiltzen da, jendea erakartzeko. Ekitaldi hori animaliak babesteko legeriarekin bateragarria denentz egiaztatu nahi genuen gure esku-hartzearen bidez.
2. Horretarako, informazio hau eskatu genuen: ea Santo Tomas ferian egiten zen animalia-zozketa arau-haustetzat jotzen den Donostiako animaliak babestu eta edukitzeko udal Ordenantzan eta urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animaliak Babestekoan. Eta, hala balitz, zein neurri aurreikusi ziren xedapen horietan adierazitako debekua betearazteko.
3. Zozketari dagokionez, Kultur eta Turismo Ekintzetxearen (KTE) zuzendari gerenteak jakinarazi digu Santo Tomas ferian herrian burutzen diren ekintzak KTEk berak antolatzen dituela. Ekintza horietako bat da Konstituzio plazan txerri bat erakustea. Txosten horren arabera, Zorroagako Patronatu Fundazioa arduratzen da txerria aukeratzeaz, haren mantenuaz eta ondoko zozketaz, bere egoitzarako dirua biltzeko. KTEren zeregina, berriz, udalak erabilera berezirako uzten duen toki bat egokitzea da, hau da, txerriaren kokaleku izango den korta jartzea. KTEk dioenez, berak ez du ezertan parte hartzen txerri erakusketan edota zozketan.
4. Geroago, udalaren zerbitzu juridikoek txosten bat bidali digute. Txosten horretan argudiatzen dute Zorroaga Patronatu Fundazioari animalia bat zozketatzeko toki publiko bat uzteak ez dituela hausten animaliak errespetatu eta babesteko printzipioak. Hori azaltzeko, feria horren tradizioa aipatzen dute -hastapenetan, nekazarien eta abeltzainen azokak izaten ziren, eta orain azoka haiek berregiten dira, herriko kaleetan animaliak erakutsiz-, eta, beren iritziz, txerria feriako protagonista da, eta ferian omenaldia egiten zaio. Animalien erakusketek ez omen diote kalterik egiten animaliak errespetatu eta babesteari, izan ere, bateragarri egin nahi omen dira tradizioa eta printzipio horiekiko begirunea. Azkenik, haien ustez, zozketa ez da Animaliak Babesteko Legean, ez udal Ordenantzan tipifikatutako arau-hauste bat, bada, zozketa baino gehiago, Zorroaga Patronatu Fundazioarentzako fondo-bilketa da. Animalia ez da erakargarri, sari edo ordain gisa erabiltzen, baizik eta sinbolo moduan,



Zorroaga Patronatu Fundazioaren aldeko diru-bilketa sinbolo horren inguruan antolatzeko. Behin eta berriz diote animalari emandako tratua ez dela iraingarria, ez lotsarazlea ere.

Txosten hori eta kexa azaldu zuen elkarteak adierazitako gainontzeko zertzeladak aztertu eta gero, honako gogoetok helarazi nahi dizkizugu:

### **Gogoetak**

1. Lehenik, gure esku-hartze hau ez da lehenengoa, gai honi dagokionez. Euskadiko beste herri batzuetan -Bilbon eta Gasteizen, kasu- honen antzeko jarduerak burutu izan ditugu, herri horietan animaliak zozketatzen baitzituzten, arauetan espresuki adierazitako debekua kontuan izan gabe.

Ekitaldi horiek tradiziozko testuingurua dutela ulertu arren, erakunde honek ahaleginak egin behar ditu legeria zorrotz bete dadin. Alegia, Santo Tomas ferian animaliak errespetatzea eta babestea -udalaren txostenak dioen bezalada gure helburua.

2. Horretarako, Arartekoak eginahalak egiten ditu Donostiako udalak honako hau berma dezan: zozketaren sustatzaileek legerian xedatutako erabaki guztiak beteko dituztela, zehazki, Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legean -Animaliak Babestekoan- ezarritakoak. Lege horrek berariaz debekatzen du, 5 d) artikuluan, animaliak sari gisa ematea, salmentak bultzatzeko.

Gure gizartea animaliekiko sentibera denez gero, animaliak objektu bizigabetzat har ez daitezen eta, izaki bizidun direnez, halakotzat jo daitezen ematen dio legeriak halako trataera ospakizunetan animaliak zozketatzeari.

Legegilearen agindu batzuek, beharbada, gizarteko gehiengoaren sentiberatasunari aurrea hartzen diote, baina udalak ez du zertzelada horretaz baliatu behar herri-agintaritzaren agindua ez betetzeko, alegia, Konstituzioaren 9.1 artikulua araei ez lotzeko.

3. Gainera, azpimarratu behar dugu udalak berak -arauak egiteko duen ahalmena erabiliz- debekatutako jarduera hori jaso nahi izan duela Donostiako animaliak babestu eta edukitzeko udal Ordenantzan. Ordenantza hori Gobernu Batzordeak behin betiko onartu zuen 1994ko abuztuaren 29an.



Udalak -bere eskumenen eremuan- berariaz debekatu du animaliak sari gisa ematea (9.6 artikulua), eta arau-hauste horretarako, 300etik 1.500 eurora bitarteko isuna aurreikusi du.

4. Udalak ezin du saihestu -tradizioa aipatuz edo zozketa patronatu pribatu batek egiten duela adieraziz- gertakari horietan duen erantzukizuna. Izan ere, gure aurreko idazkian azaldu genuenez, patronatu horri toki publiko bat ematen dio, Euskal Herriko legerian nahiz udalaren ordenantzetan administrazioaren arau-haustetzat tipifikatuta dagoen ekitaldi bat burutzeko.

Era berean, Arartekoak berriro adierazi nahi du zigortzeko ahalmena ez dela ezin baliatuzko eta ezin utzizko ahalmena, administrazio eskudunak -kasu honetan, udalak- nahitaez jardun behar baitu, administrazio alorreko arau-hausteren bat gertatu dela jakiten badu.

Inolaz ere ez ezin du bere arauen kontrako interpretaziorik egin eta arau horiek ez betetzea zuzitzen saiatu, zozketa ongintzazkoa dela edo diru-bilketa soila dela argudiatuz, txartelean argi asko adierazten baita txerria dela zozketaren lehen saria. Bestalde, jasotako diruak helburu txalogarria badu ere, ez du aldatzen zozketaren izaera -zorteari lotutako sari edo ordain bat baitago-, eta ez du indargabetu behar legeria betetzeko premia. Horrela, Jokoei buruzko 4/1991 euskal Legeak, azaroaren 8koak, jokoaren katalogoen barruan sartzen ditu zozketak, nahiz eta sustatzaileek ongintzan edo jendeari laguntzen jardun.

Laburbilduz, aipatutako arauak betetzea ez dago herri-administrazioen irizpidearen baitan, batik bat administrazioek berek arau horiek onartzen parte hartu badute; beraz, administrazioek arauok modu eredugarrian bete behar dituzte beti.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **37/2002 GOMENDIOA, abenduaren 3koa, Donostiako udalari egina**

Eragotz dezala Santo Tomas feriako zozketan animaliak salmentak bultzatzeko erabil daitezten, eta berma dezala ospakizun horretan beteko direla Animaliak Babesteko 6/1993 Legearen -urriaren 29koa- 4. eta 5. artikulua, eta baita animaliak babestu eta edukitzeko udal horren Ordenantzaren 9. artikulua ere.